

BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

4072

EBAZPENA, 2025eko irailaren 23koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integraletarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia argitaratzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2025eko irailaren 23ko bilkuran, lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integraletarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzeko erabakia hartu du, apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren bidez onartutako estatutuen 11.j) artikuluen arabera.

Estatutu horien 14.2.n) artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzenbide pribatuko ente publiko horren zuzendari nagusiari dagokio argitaratu daitezen agintzea.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2025eko irailaren 23ko erabakia, lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integraletarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen. Ebazpen honen eranskinean dago aipatutako erabakia.

Bigarrena.– Ezagutzera ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabaki horrek ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Ohartaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabaki horren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dakiokela organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 23a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

«LEHENTASUNEZKO ARRETA KO KOLEKTIBOENTZAKO ENPLEGU-PROIEKTU INTEGRALAK» FINANTZATZEKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA 2025EKO EKITALDIRAKO

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legeak (abenduarien 22ko 14/2022) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea du xede. Sistema hori bideratuta dago pertsonak baztertuta geratzeko arriskua prebenitzera, bazterketa sozial eta laboreko egoerak arintzera, bizitza duina bermatzera eta baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenak erabat gizarteratzera.

Horrela, helburuetako bat du bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen zerbitzu eta programa egokiak eskaintzea lan- eta gizarte-inklusioreko, gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek koordinatuta jardunez, batez ere.

Ildo beretik, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren (www.euskadi.eus) 3. sektore estrategikoan proposatutako orientabideen helburua da, hain zuzen ere, laguntza eta orientazio pertsonalizatuak ematea enplegu-politika aktiboen funtsezko elementu gisa, pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko eta lan-merkatuan sartzea errazteko. Gainera, 2030 Euskal Enplegu Estrategian zehaztutako lan-merkatuaren eredu berria, besteak beste, lurralde-orekaren printzipioan oinarritzen da, enplegu-aukerak eskualde eta udalerri guztietara irits daitezen.

Ondorioz, deialdi honen bidez, enplegua lortzen laguntzeko ibilbide integral bat eskaini nahi zaie gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuen premia handiena duten biztanleei eta, bereziki, kalteberatasun-egoeran edo gizarteaz baztertuta geratzeko arriskuan daudenei. Izan ere, ibilbide horrek, toki-entitateekin lankidetzan, lan-esperientzia bat izateko aukera emango die eta, horri prestakuntza-jarduerak eta banakako laguntza eranstean bazeazkie, laneratzeko egonkorragoa izango da. Ekitatearen eta lurralde-berrerekaren ikuspegitik, deialdi honen xede diren proiektuak gizarte-onurako eremuetan garatu beharko dira, eta ase gabeko gizarte-premiak estaltzera eta arintzera edo kalitate oneko eta interes publikoko ekoizpen-sinergia jasagarriak sortzera bideratuta daude.

Deialdi honek «Berrerekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo kalteberak» ekimenarekin lortutako emaitza onetan du jatorria. Ekimen hura Europar Batasunaren Next-GenerationEU delakoak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatu behar da. Ekimen hura oinarritzat hartuta, Lanbideko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdi bat onartu zuen 2021eko abenduaren 21eko bilkuran, enpleguko, prestakuntzako eta laneratzeko laguntzeko 47 proiektu garatzeko. Proiektu horietatik, 462 lagunek jaso dute onura.

Lehenago izandako emaitza onak kontuan hartuta, proiektu horiek ezartzen jarraitu zen 2023-2024ko eta 2024-2025eko deialdien bidez. Deialdiak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak onartu zituen, 2023ko irailaren 5eko bilkuran eta 2024ko uztailaren 9an egindakoan, hurrenez hurren, eta EAEko aurrekontuen kontura finantzatu ziren osorik. Deialdi horien bidez, 44 eta 45 proiektu garatu eta martxan jarri dira, hurrenez hurren (eta, guztira, 437 eta 441 laguni eman zaie arreta).

Deialdi honetako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2025eko ekitaldiko Dirulaguntza Plan Estrategikoan aurreikusita daude. Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2025eko urtarrilaren 3ko Aginduak (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duenak) onartu zuen plan hori, eta www.lanbide.euskadi.eus web-orrian argitaratu zen, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen

duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Deialdia 4.4 gako estrategikoan kokatuta dago, «Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako aukera-berdintasuna enpleguan, eta merkatu arruntean benetan sartzea lortzeko tresnak indartzea» delakoan.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak egindako proposamena kontuan hartuta, zuzenbide pribatuko ente publikoa horren Administrazio Kontseiluak, 2025eko irailaren 23ko bilkuran, «Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak» finantzatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta horien deialdia onartu du, 2025eko ekitaldirako, artikulua hauen arabera:

1. artikulua.– Oinarri arautzaileen xedea.

Oinarri hauen xedea dirulaguntzak ematea da, «Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak» finantzatzeko. Dirulaguntzen bidez, arreta integral eta pertsonalizatua eman nahi zaie gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenei edo kalteberatasun sozialeko egoeran daudenei.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 7.505.000 eurokoak dira guztira; horietatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2025eko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak dira 5.025.000 euro, eta 2026ko konpromiso-kreditukoak, 2.480.000 euro.

Kopuru horiek % 20 handitu daitezke, hala badagokio, baldin eta indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek egiten badira, ezagutzera emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

2.– Deialdi honen xede diren dirulaguntzak Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatu ahal izango dira, osorik edo zati batean, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF+ 2021-2027 Programaren esparruan.

3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honetan xedatutako baldintzetan, 6. artikuluan aipatutako pertsonentzako enplegu-proiektu integralek jaso ahalko dute dirulaguntza.

2.– Enplegu-proiektu integralek jarduketa hauek guztiak konbinatu beharko dituzte:

- Lan aurreko gaitasunei, zeharkako gaitasunei eta gaitasun profesionalei buruzko prestakuntza.
- Parte-hartzaile bakoitzaren lan-kontratazioa.
- Lan-orientazioa eta aholkularitza.

2.1.– Lan aurreko gaitasunei, zeharkako gaitasunei edo gaitasun profesionalei buruzko prestakuntza.

– Lan aurreko gaitasunei edo zeharkako gaitasunei buruzko aurrez aurreko prestakuntzako talde-ekintzak, antze, abilezia edo trebetasun handiagoak berenganatzeko eta horrela proiektuko lan-jarduera ondo garatuko dela bermatzeko. Gutxienez 60 ordu eta gehienez 90 ordu iraungo dute. Kontratuak iraun bitartean eta lan-ordutegitik kanpo egingo dira.

– Gaitasun profesionalei buruzko aurrez aurreko prestakuntzako talde-ekintzak, gaikuntza tekniko hobea lortzeko. Gutxienez 40 ordu eta gehienez 110 iraungo dute. Kontratuak iraun bitartean

edo, gehienez ere, kontratazioa hasi aurreko bi hilabeteetan egingo dira, betiere lan-ordutegitik kanpo.

Prestakuntza egin bitartean, ikasleek aseguru-estaldura izango dute ikastaroetan eta haietara joateko bidean dituzten arriskueterako, Eusko Jaurlaritzak sinatutako polizak istripuak eta erantzukizun zibila estaliko baititu.

2.2.– Parte-hartzaile bakoitzaren lan-kontratazioa, honako baldintza hauekin:

- Egindako kontratuak inoiz ere ezingo dira erabili enplegua eskaintzen duen entitatearen ohiko jarduerak estaltzeko edo haren zerbitzura dauden langileak ordezkatzeko.

- Kontratuak lanbide-kategoria berekoak eta sektore ekonomiko berekoak izango dira.

- Kontratuek 6 hilabete iraungo dute eta lanaldi partzialekoak izango dira, alegia, lanaldiaren % 75ekoak. Kontratu-mota okupagarritasuna eta laneratzea hobetzeko kontratua izango da, Enpleguaren Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian (505 kodea) ezarritakoa.

- Ibilbide indibidualizatuaren barruan egin beharreko lan-kontratuak artikuluko 3.a) apartatuan proiektuak gauzatzeko araututako aldiari hasi eta amaitu beharko dira.

- Kontratuen berri emateko Contrat@ aplikazioa erabiliko da, kontratua hasi eta hamabost egun balioduneko epean, eta «Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak» aipamena izan beharko dute, aplikazio horretan ezarritakoaren arabera.

- Lanpostuan garatuko diren eginkizunak eta edukiek, ahal dela, onura publikoko edo interes orokor eta sozialeko jarduerekin lotuta egon behar dute, gauzatzen diren ingurunearen premiei erantzun behar diete eta jarduketaren eremu hauetakoren batean garatu ahalko dira:

- Hirugarren eta laugarren adineko pertsonen laguntzea eta arreta ematea (silver economy).

- Etxebizitzak eta landa-ingurunea hobetzea eta birgaitzea egoera behartsuenean edo gutxien garatuta dauden udalerri edo auzoetan.

- Egoera ahulean dauden taldeak, desgaitasun fisiko edo psikikoa duten mendeko pertsonak edo gaixotasun kronikoa dutenak zaintzea eta laguntzea.

- Kultura, hezkuntza eta osasuna sustatzea.

- Ondare artistiko eta historikoa sustatzea eta berreskuratzea.

- Baliabideak birziklatzea eta berrerabiltzea.

- Energia-efizientzia eta energia berrietagarriak bultzatzea.

- Espazio publikoetan mantentze-lanak egitea.

- Turismoarekin, aisialdiarekin eta kirolarekin lotutako jarduerak egitea.

- Naturaren kontserbazioa: zuhaitz-masak, animalia-espezieak, ibaien eta kostaldearen garbiketa.

- Eten digitala ezabatzea. Gaitasun digital gutxiko pertsonen laguntzea administrazio publikoekiko zereginak bide elektronikoan egiten, erosketak elektronikoak egiten, banku-eragiketak egiten eta abar.

- Enpresa emakidadunak lanak amaitu dituen harrobiak berreskuratzea.

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko sareak instalatzea eta haien mantentze-lanak egitea.
- Eraikinak birgaitzea eta araudi energetiko berrira egokitzea.
- Mugikortasun jasangarria.
- Jarduera soziokulturalak eta garapen komunitariokoak egitea, belaunaldi arteko komunikazio-kanalak ezartzeko aukera ematen dutenak lehenetsiz.
- Erabilera publikoko edo interes orokor eta sozialeko beste edozein jarduera, lanpostuan ikas-kuntza formala eta praktika profesionala bateragarri egitea ahalbidetzen duena.

2.3.– Lan-orientazioa eta aholkularitza.

Proiektuan zehar laguntza-prozesuak errazteko lan-orientazioko banako ekintzak, horien barruan honako hauek sartu ahalko direlarik: eskumenen balantzea, lan-merkatuaren informazioa, irteera profesionalak, helburuen planifikazioa eta enplegua bilatzeko gaitasunak, gutxienez 6 orduz. Ekintza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren laneratzeko informazio-sistemetan orientazio-entitate gisa alta emanda dauden entitateek gauzatu beharko dituzte.

Saio horiek egin izana Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Orientaziorako aplikazioan erregistratuta geratuko da, erabiltzaileek WACOM gailuaren bidez sinatuta.

3.– Diruz lagundu daitezkeen enplegu-proiektu integralek honako ezaugarri hauek beteko dituzte:

a) Proiektuak, edonola ere, 2025eko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko dira, eta 2026ko urriaren 1a baino lehen amaitu.

Ondorio horietarako, jardueraren hasiera jotzen da proiektuaren hasieratzat, edo, bestela, Lanbiden aurkeztutako lan-eskaintzaren kudeaketa-eskaria edo prestakuntzaren edo orientazioaren azpikontratazio-prozeduraren hasiera.

b) Taldearen osaera:

– Taldeak, hasiera batean, gutxienez 8 parte-hartzaile eta gehienez 12 edukiko ditu, lehentasuneko arretako kolektiboetakoak, 6.1 artikuluko definizioaren arabera. Lehen talde-jarduketa hasitakoan joko da taldea eratutzat. Hau da, artikuluko honetako 2.1 eta 2.2 apartatuek hizpide duten prestakuntza edo kontratazioa hasitakoan.

– Talde horren erreferentea koordinatzaile edo tutore bat izango da, jarduerako koordinazio- eta jarraipen-zereginak beteko dituen. Tutoretza-eginkizunak hartuko dira koordinazio- eta jarraipen-zereginatzat, alegia, parte-hartzaileen taldeak interes orokorreko jarduerak egiteko garatzen dituen lan profesionalen tutoretza egitea. Figura hori 7. artikuluko 3.d. apartatuan xedatutakoaren arabera finantzatu ahal izango da.

c) Parte-hartzaileak ordeztzeko politika.

Programan baja hartzen duten parte-hartzaileak ordeztzeko aukera egongo da, baldin eta ordezkapena proiektuan aurreikusitako prestakuntza-orduen % 35 eman baino lehen egiten bada eta hasierako hautagaien artean aukeratutako pertsona batekin egiten bada. Hautagai horiek kontratua ezin badute egin jada sartzeko baldintzaren bat betetzen ez dutelako edo egiteko moduan ez daudelako, beste lan-eskaintza bat zabaltu ahal izango da, hasierako eskaintzaren ezaugarri berberekin, ordezkapena egin behar denerako hasierako eskaintza iraungita badago.

Ordezten gero, ordeztu den pertsonak orientazio-orduak jaso baditu, haren lekuan ibilbidean sartzen denak gainerako orduak jasoko ditu, nahitaez egin beharrekoak diren gutxieneko sei orduak amaitu arte.

4. artikulua.– Enplegu-proiektu integralak gauzatzea.

Programaren onuradunen kontratazioak, 3. artikularen 2.2 apartatuan xedatutakoak, 5.1. artikuluan adierazitako entitateek egingo dituzte, haien mendeko entitateak barne, bai zuzenean, bai zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko entitateen bidez (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen araututa dago), baldin eta haiekin hitzarmen bidez adosten bada edo kontratu bidez esleitzen bazaie proiektuak gauzatzea.

Entitate onuradunak aukera du aurreikusitako jarduerak gauzatzea –partzialki edo oso-rik, % 100era arte–hitzartzeko, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatuaren arabera.

Horri dagokionez, 20/2023 Legearen 31. artikuluko 7. apartatuan araututako debekuak errespetatzeaz gain, entitate onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurretiazko baimena eskatu beharko du, baldin eta hirugarrenekin kontratatutako jardueraren zenbatekoa dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada edo kontratua hari lotuta dauden pertsona edo entitateekin sinatuko bada. Horretarako, baimen-eskabidearekin batera, sinatu nahi den kontratuaren proposamenaren kopia aurkeztuko du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendariak ebatziko du. Baimena eman dela ulertuko da, baldin eta eskabidea aurkeztu denetik 10 eguneko epean berariaz ebazten ez bada.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Erakunde hauek izan daitezke 3. artikuluko 2. apartatuan aipatutako jarduketak gauzatzeagatik laguntzen onuradunak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiak, mankomunitateak, kuadrillak eta udalerriak edo udalerri-elkarteak, bai eta haien mendeko edo haiei lotutako organismoak eta gainerako entitateak ere, autonomia- eta toki-sektore publiko instituzionala osatzen dutenak. Era berean, nortasun juridikorik gabeko udalerri-elkarteak ere onuradun izan daitezke, horietako bat ordezkari dela, eta Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie. Udal-erri-elkartea ezin izango da desegin, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideei buruz lege xedatuta dagoen preskripzio-epea igaro arte.

– EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta haiekin lotutako entitateak.

– Irabazi-asmorik gabeko landa-garapenerako elkarteak, Landa Garapenerako Elkarten Bereziazko Araudiari buruzko ekainaren 25eko 158/2002 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

2.– Ezingo dira onuradun izan egoera hauetako batean diren entitateak:

a) Delitu hauetakoren bat egiteagatik kondenaturik egotea: prebrikazioa, funtzionario-eroskaria, ondasun publikoen bidegabeko eralgitzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Epai edo administrazio-ebazpen irmo batek kondenaturik edo zehaturik egotea eta horren ondorioz dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu izana eta kondena- edo zehapen-epea igaro gabe egotea.

c) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota egotea, konkurtsoan deklaratura egotea –konkurto horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada izan ezik–, esku-hartze judizialaren mende egotea edo Konkurtsoaren uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaituntza-aldia oraindik amaituta ez egotea.

d) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, eta suntsiarazpenaren arrazoiaren errudun deklaratu izana.

e) Merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak badira, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean edo Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean egotea edo Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat betetzea, arau horretan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritakoaren arabera.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan (2023ko otsailaren 17ko EHAA) xedatutakoaren arabera.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen diren, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Nolanahi ere, eskatzaileak berariaz egin diezaioke aurka egiaztatze-lan horri eta, halakorik egiten baldin badu, ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu betekizun hori betetzen duela frogatzeko.

g) Egoitza fiskala erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean izatea.

h) Dirulaguntzen arloko itzulketa-betebeharrak egunean ez izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduak (2023ko otsailaren 17ko EHAA) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

i) Zehapen administratibo edo penalak izatea sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik –zehazki, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua, edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta zehapen-epea igaro gabe egotea.

j) Dirulaguntzak edo bestelako laguntzak jasotzea eragozten dion legezko kausak izatea, hauek barne:

– Ez edukitzea berdintasun-planik indarrean, nahiz eta enpresa Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta egon.

– Ez edukitzea ezarrita neurririk sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak dauzkan legeek ezarritakoaren arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

– LGTBfobian aritzea, hura bultzatzea edo sustatzea, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

k) Zehatuta egotea, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, arau-hauste astun edo oso astun bat egiteagatik, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

l) Ez betetzea desgaitasuna dutenentzat lanpostuak gordetzeko lege ezarritako kuota edo, bestela, horren ordezkotz neurriak hartu gabe egotea.

m) Elkarteen kasuan, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 4. artikuluko 5. eta 6. zenbakietan xedatutako debeku-kausen eraginpean egotea.

n) Legez kontrako egintza penalen zentzuzko zantzuak aurkitu zaizkiola-eta inskripzio-prozedura administratiboa eten zaion elkarte bat izatea, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen dion ebazpen judizial irmorik ez dagoen bitartean.

ñ) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, eta eskatzailea irabazi-asmoa duen pertsona fisikoa edo juridikoa bada, zuzenbide publikoko entitate ez dena, ez betetzea Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 3 bis apartatuan aurreikusitako moduan.

Eskakizun hori betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila Enpresak Sortu eta Handitzeko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarreneko d) letrako bigarren apartatuan aurreikusitako ehunekoaren parekoa edo handiagoa denean (aurreko ekitaldian hornitzaileei egindako ordainketa guztietatik ordaindutako fakturen % 90, abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako gehieneko epea igaro baino lehen).

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ez badu egiaztatzen 2. apartatuan xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da. Adierazpen hori eskabide-inprimakian dago. Dena den, ñ) apartatuko betekizuna egiaztatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkezteko modurik badu, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko a) apartatuan aipatutako ziurtagiria aurkeztu beharko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako eredia erabiliz.

Ziurtagiri hori dirulaguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

– Eskatzaileak kontabilitate-araudiaren arabera ezin badu aurkeztu galdu-irabazien kontu laburtua, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko b) apartatuan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu, hau da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek emandako ziurtagiria, apartatu horretako 1. zenbakian eskatutako edukiarekin; edo, ziurtagiri hori ematea ezinezkoa bada, Prozedura Adostuen Txostena, aipatutako apartatuko 2. zenbakian eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartuak) 22 bis artikuluan xedatutako baldintzetan.

Dokumentazio hori dirulaguntza eman aurretik eskatuko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak.

4.– Entitate onuradunak konpromisoa hartuko du enpresa ez deslokalizatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 49. artikuluan ezarritakoaren arabera. Konpromiso hori aurreko 3. apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaren zati izango da.

5.– Entitate onuradunek proiektu bakoitza bermearekin garatzeko behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak dauzkatela egiaztatu beharko dute.

Informazio hori egiaztatzeko, entitatearen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du. Erantzukizunpeko adierazpena eskabide-inprimakian jasota dago. Nolanahi ere, entitate eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eskuratzeko moduan eduki beharko ditu adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla frogatzen duten agiriak.

6. artikulua.– Hartzaileak.

1.– Deialdi honen babesean diruz lagundutako enplegu-proiektu integraletan, kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak hartu ahalko dute parte, langabezian badaude, Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta badaude eta EAEn bizi badira.

Hauek hartuko dira kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonatzat:

- 45 urtetik gorako pertsonak.
- DSBEaren edo BGDSaren titularrak edo onuradunak.
- Luzaroko langabeak: alegia, hautagaitza bidaltzen den egunaren aurrekoan lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan lan-eskatzaile gisa inskribatuta eta alta emanda egonik, egoera horretan hautagaitza bidali aurreko 540 egunetan gutxienez 360 egunez egon direnak.
- Kualifikazio baxuko langabeak: enplegu-eskaeran 23. mailatik gorakoa ez den bitartekotzako prestakuntza-maila adierazi duten pertsonak: DBHko graduatu titulua edo baliokidea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, laguntza espezifikokoak jasotzen dituztenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak –harrera-baliabideetatik etortzeagatik edo bestelako inguruabar batengatik–, egoera berezi hori egiaztagiri bidez egiaztatuta dutenak eta enplegu-eskaeran izaera berezi horren aipamena dutenak.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenak, Gizarte Zerbitzuek egiaztatuak.
- Alboko esklerosi amiotrofikoa duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zain-tzaile ez-profesionalak.
- Kalteberatasun-egoeran dauden eta enplegu-politiketarako lehentasunezko arretako kolektibotzat hartzen diren beste pertsona batzuk, Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 50. artikuluan ematen duen definizioaren arabera.

2.– 2024-2025eko deialdian («Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak») diruz lagundutako proiekturen batean parte hartu dutenak ezingo dira enplegu-proiektu integralen onuradun izan, kalteberatasun-egoeran egoteari buruzko baldintza bete arren. Nahikoa parte-hartzaile ez egoteagatik ezinezkoa bada proiektua abian jartzea, Lanbide-Euskal Enplegu

Zerbitzu Publikoak pertsona horiek parte hartzeko baimena eman ahalko du, txosten justifikatzaile bat aurkeztu ondoren egoitza elektronikoaren bitartez.

7. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Enplegu-proiektu integraleko prestakuntza-, orientazio- eta kontratazio-prozesu osoa amaitzen duen pertsona bakoitzeko 17.115 euro jasoko dira.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa konfiguratzeko, programan parte hartzen duen pertsona bakoitzeko kostu unitarioa hartu da kontuan. Nolanahi ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da gastuaren benetako kostua baino handiagoa izan. Kostu hori justifikazioa egiteko unean egiaztatu beharko da, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek dira:

a) 1.794 euro prestakuntza-ekintzetarako, 3. artikuluko 2.1 apartatuan xedatutakoaren arabera.

b) 9.375 euro parte-hartzaileen lan-kontratu bakoitzeko, 3. artikuluko 2.2 apartatuan xedatutakoaren arabera. Dirulaguntza honen bidez, kontratatutako parte-hartzaileen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzaren kostuak estaliko dira.

c) 246 euro orientazio-ekintzetarako, 3. artikuluko 2.3 apartatuan xedatutakoaren arabera.

d) 3.470 euro lanbide-jardueraren koordinazio- eta jarraipen-lanez arduratzen diren langileen soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzaren gastuak estaltzeko. Partida honi dagokionez, dirulaguntza ematen den egunetik aurrera sortzen diren gastuak onartuko dira.

d) 2.230 euro, jarduketa horiek gauzatzearekin zuzenean lotuta dauden beste kostu batzuetarako (jarduketa horietan emandako denboraren arabera ordainduko da): aseguruak, materiala, lokalaren alokairua, parte-hartzaileen kontziliazio-neurriak, eta abar.

4.– Hirugarrenekin kontratatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du kontratazio horren kostua gainditu.

8. artikulua.– Eskabideen aurkezpena.

1.– Dirulaguntza-eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/web-orrian>. Horra iristeko esteka bat egongo da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren web-orrian.

Eskabidea aurkeztu ondoko izapideak, kanal elektronikoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Halaber, izapideak ordezkari baten bidez egin daitezke, eta, horretarako, ordezkaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu daiteke, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituen) helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/1210504>

3.– Eskabide-inprimakia oso-osorik bete beharko da, bertan eskatzen diren datu guztiak emanez proiektuaren edukari eta faseei buruz eta ebaluatu behar diren kontzeptuei buruz. Halaber, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko entitatearen legezko ordezkariak betetzen dituela dirulaguntza eskuratzeko baldintzak eta badituela proiektu bakoitza berme osoz garatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak.

Nortasun juridikorik gabeko udalerri-elkarteek aurkeztutako eskabideen kasuan, elkartea eratzeko izenpetzen duten agiriaren kopia aurkeztu beharko dute. Bertan, berariaz jasoko dira, batetik, ordezkari gisa izendatutako udalerria; bestetik, elkarteko udalerriek diruz lagundutako jardura garatzeko hartutako konpromisoak; eta, azkenik, horietako bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa, hala badagokio. Kasu horretan, elkarteko udalerri guztiek sinatu beharko dute erantzukizunpeko adierazpena.

b) Eskabide-memoria, gehienez 15 orrialdekoa. Bertan, proiektua deskribatuko da, eta puntu hauei guztiei buruzko informazio zehatza, egokia eta nahikoa emango da, laguntza emateko ezinbesteko eta gutxieneko edukia baita:

- Eskatutako lurralde-eremuan proiektuak komunitatearentzat eta onura publikoarentzat duen interesaren diagnostikoa. Indarrak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak zehaztuko dira.

- Eskatutako lurralde-eremuan proiektuko lanbideen edo lan-jardueren egungo lan-merkatua dagoen egoeraren analisia. Langabezia- eta pobrezia-magnitudeen datuen, eboluzioaren eta ondorioen analisia.

- Proiektuaren publizitate-estrategia; bertan, xede-taldearen norainokoa eta hedapen-prozesua zehaztuko dira. Gainera, parte-hartzaileen lanpostuak estaltzeko eskaintza-eskabidearen inprimakia aurkeztuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak «Eskaintzen eskabide ereduak - Kontratazioak» web orrialdean emandako ereduaren arabera eta 10. artikuluan zehaztutako betekizunak kontuan hartuta.

- Enplegu-eskaintzaren kudeaketan bidalitako pertsonen eta proiektuan parte hartzeko hautagaien azken hautaketa-prozesuaren diseinua. Elkarriketarako aurreikusitako hautagaien kopurua, elkarriketarako gidoia, parte-hartzaileen taldea eratzeko irizpideak eta elkarriketak egingo dituzten profesionalen taldearen osaera.

- Proiektuaren kronograma: prestakuntza-, orientazio- eta kontratazio-jardueren egutegia eta orduak.

- Prestakuntza-ibilbidearen diseinua, proiektuaren xede den kolektiboaren ezaugarrietan oinarritua:

Bai lan aurreko gaitasunei bai gaitasun teknikoei buruz egingo diren prestakuntza-ekintzen plangintza. Plangintza, edukia, orduak, helburu orokor eta zehatzak eta aplikatu beharreko metodologia didaktikoaren deskribapena.

- Lan-prospekzioko estrategia: Erabili beharreko orientazio-jarduerari laguntzeko tresnen metodologia eta zerrenda. (ikus-entzunezkoak, Interneteko estekak, argitalpenak, eskuliburuak, etab.).

- Enplegu-estrategiaren definizioa.

- Komunitatean egin beharreko lanen zerrenda.

- Parte-hartzaileen lanpostuen deskribapena eta eginkizunak.

– Parte-hartzaileen lanbide-jardueran tutorea izango den koordinatzaile- edo langileburu-figura-ren lanpostuaren deskribapena eta eginkizunak.

– Lan-arriskuak ebaluatzeko plana.

Gutxieneko edukia jasotzen ez duten proiektuen eskabideak ezetsi egingo dira.

4.– Eskabideak baldintza guztiak bete ezean, entitate interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balio-duneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, izandako hutsune edo akatsa konpontzeko edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko da, horretarako beharrezkoa den ebazpena eman eta gero.

5.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2025eko urriaren 31n amaituko da.

9. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Deialdi honen babesean xedatutako dirulaguntzak emateko prozedura segidako lehiaketa-rena izango da.

2.– Prozedura bideratzeko organo eskuduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendaria da, eta ebazteko organo eskuduna, berriz, Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria.

3.– Eskaerek eta 8. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztutako agiriei deialdi hone-tako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, ordenan emango dira laguntzak, espedientea osatzen den unearen arabera, jarduketa horietarako aurrekontu-zuzkidura amaitu arte, 2. artikuluen 1. apartatuan aurreikusitakoa betez.

Aurrekontu-zuzkidura –hasierakoa edo handitua– amaitutakoan, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta emango da inguruabar horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendariaren ebazpen baten bidez.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena emango du, eta ebazpena banan-banan jakinaraziko da, bitarteko telematikoen bidez.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta justifikatzeko modua adieraziko dira.

Dirulaguntza ukatzeko ebazpenean arrazoiak azaldu beharko dira, hau da, berariaz adierazi beharko da eskaera zergatik ukatu den.

5.– Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskabidea aurkeztu den egunetik zenbatuta. Epe hori igarotakoan ebazpena jakinarazi ez bada, erakundeak dirulaguntza-eskabidea ezetsi dela ondorioztatu ahal du.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren ebazpenek ez diote amaierarik ematen administrazio-bideari, eta haien aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakioke Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

7.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendariaren ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da deialdi honen babesean emandako dirulaguntzen onuradunak diren entitateen zerrenda, baita jasotako zenbatekoak ere.

10. artikulua.– Enplegu-proiektu integralen hartzaile diren pertsonen hautaketa.

1.– Entitate onuradunek beren enplegu-proiektu integralean parte hartuko duten pertsonak eskatuko dituzte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren dagokion bulegoan lan-eskaintza bakarra aurkeztuz proiektu bakoitzeko.

Parte-hartzaileek, nahitaez, enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta eta langabezian egon beharko dute beren hautagaitza lan-eskaintzara bidaltzen duten unean eta proiektua hasi aurreko egunean. Bai prestakuntza-jarduketa bai kontratazio-jarduketa hasten direnean ulertuko da proiektua hasi dela. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egiaztatuko du betekizun horiek betetzen diren.

2.– Eskaintza-eskabideak betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Eskaintza-eskabidean, proiektuan parte har dezaketen hautagaien bizileku geografikoa zehaztu beharko da, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

b) Ezingo dira ez nahitaezko betekizuntzat ez baloragarritzat jo esperientzia, hizkuntza eta Bigarren Hezkuntzako lehen etapatik (eskola-graduatutik edo baliokidetik) gorako prestakuntza-maila.

c) Eskaintako postuek lanbide- eta soldata-maila berekoak eta jarduera ekonomiko berekoak izan beharko dute.

d) Entitate kontratatzaileak bakarra izan beharko du.

3.– Hautagaitzak lortzeko eskaintza kudeatzen duen Lanbideren bulegoak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren webgunean argitaratu beharko du eskaintza, eta gutxienez zazpi egun naturalez eduki beharko du bertan argitaratuta.

4.– Ez dira deialdi honen babeseko ekintza eta zerbitzuen hartzailetzat hartuko estatuko lan-merkatuak sarbiderik ez duten pertsonak.

5.– Entitate onuradunei dagokie behin betiko hautagaiak hautatzea. Entitateak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eskaintzaren kudeaketa dela-eta egindako inkestari erantzun beharko dio, jasotako hautagaitza guztien emaitzarekin.

6.– Koordinatzailea edo tutorea, lantaldearen jarduerako koordinazio-, kudeaketa- eta jarraipen-zereginenez arduratuko dena, 7. artikuluko 3.d) apartatuan xedatutako moduan finantzatu ahalko da, baina ez da hartzailetzat jotzen eta, beraz, figura hori hautatzeko eta kontratatzeke ez da beharrezkoa artikuluko honetan jasotako betekizunak betetzea.

11. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko modua.

1.– Onartutako dirulaguntza bi zatitan ordainduko da; honela:

a) Lehenengo ordainketa, hau da, proiektuaren guztizko dirulaguntzaren % 67, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren egingo da, 2025eko aurrekontuaren kontura.

b) Bigarren ordainketa, guztizkoaren gainerako % 33a gehienez ere, 2026ko konpromiso-kredituaren kontura emango da, dirulaguntzak 12. artikuluan xedatutako moduan justifikatu eta egiaztatu direnean.

2.– Ordainketa aurreratuen zenbatekoa 180.000 eurotik gorakoa bada, dirulaguntzaren onuradun den entitateak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintzan zenbateko aurreratua estaltzeko bermea edo fidantza eratu duelako frogagiria aurkeztu beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan, dagokion ordainketa egin aurretik.

Bermeak ordainketa aurreratuaren nominala estali beharko du, baita haren interesak ere, gehie-
nez urtebeterako, eta gehiezez nominalaren ehuneko hamabost, balizko erreklamazio judizial edo
estrajudizialaren kostu eta gastuetarako.

3.– Dirulaguntza emateko ebazpenaren ondoren egingo du Administrazioak ordainketa, entitate
onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan.

Entitateak ez badu Lanbideren ordainketarik jaso edo bankuko datuak aldatu nahi baditu, hiru-
garrenaren fitxa bete beharko du. Fitxa helbide honetan egongo da eskuragarri: [https://www.
euskadi.eus/servicios/1210504](https://www.euskadi.eus/servicios/1210504)

4.– Ordainketa bakoitza egin baino lehen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak
zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak bete direla egiaztatuko du.

Entitate onuradunak, egiaztapen hori egitearen aurka agertzen bada, baldintza hori egiaztatzen
duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

12. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Enplegu-ibilbide integralak egikaritzeko jarduketei dagokien likidazioa parte-hartzaile bakoit-
zeko eta gastu-kontzeptu bakoitzeko egingo da, 7. artikuluko 3. apartatuan zehaztutakoaren arabera.

2.– Honela likidatuko dira 3. artikuluko 2.2 eta 2.3 apartatueta zehaztutako jarduketak:

2.1.– Parte-hartzaile bakoitzaren lan-kontratazioaren kasuan (3. artikuluko 2.2 jarduketa), diruz
lagundutako lan-kontratuak –ibilbide pertsonalizatuaren barruan eginak– dirulaguntzaren iraun-
dia amaitu baino lehen azkentzen badira, horren berri eman beharko zaio Lanbide-Euskal Enplegu
Zerbitzu Publikoari, 7 eguneko epean kontratua azkentzen denetik hasita.

Horren ondorioz, azkendutako kontratuaren kontura jasotako dirulaguntza osorik itzuli beharko
da. Horretarako, dagokion prozedura izapidetuko da, 15. artikuluko arautzen dituen jarraibideak
betez. Nolanahi ere, kontratua azkentzeko arrazoiak izan bada probaldia ez gaitzitea, langileak
lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren herio-
tza edo baliabiezintasuna, dirulaguntzaren zenbatekoa lan-kontratuak benetan iraun duenarekiko
proportzioan murriztuko da.

2.2.– Orientazio-jarduketaren kasuan (3. artikuluko 2.3 jarduketa) likidazioa benetan gauzatu-
tako eta erregistratutako ekintzen arabera izango da.

3.– Likidazioak ez du inola ere gaitziteko hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

4.– Hirugarrenekin kontratatuz gero, kontratatutako gastu-kontzeptuetarako dirulaguntzaren
zenbatekoak ezingo du kontratazio horren kostua gaitzitu.

5.– Ibilbide integralen proiektuaren justifikazioa bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, kon-
tratuak azkentzen diren egunetik aurrera.

Justifikazioak dokumentu hauek hartuko ditu barne:

a) Justifikazio-memoria bat. Gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen xehetasuna.
- Garatu den eta komunitatearentzat interesgarria den jardueraren deskribapena.
- Hasieran aurreikusitako helburuen ebaluazioa eta betetze-maila.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako fitxak, web-orri honetan daudenak: https://www.lanbide.euskadi.eus/ayuda_subvencion/20xx/catp/weblan00-content/es/

- Ibilbide osoko ekintzen laburpen-fitxa, parte-hartzaile bakoitzeko.
- Lehentasunezko arretako kolektiboen gogobetetasun-inkesta.
- Monitore-lanak egin dituzten pertsonen zerrenda.
- Kontzeptu bakoitzeko gastuaren justifikazioa, bestelako finantzaketa-iturriak eta hirugarrenekiko azpikontratazioaren xehetasuna jasotzen dituen fitxa, hurrengo c), d) eta e) apartatuetan azaldutakoaren arabera.

c) Gastuaren ziurtagiria, entitate onuraduneko idazkariak edo kontu-hartzaileak egina, toki-entitatea edo sektore publikoko entitatea bada. Lanbidek emandako ereduaren arabera egingo da eta, bertan, 7. artikuluko 3. apartatuan azaldutakoaren arabera zehaztuko dira gastu-kontzeptu bakoitzaren zenbatekoak. Gainerako entitateek, Lanbidek emandako fitxa aurkezteaz gain, egindako gastua egiaztatzen duten gainerako dokumentuak eta kontzeptu bakoitzagatik egindako ordainketen egiaztatgiriak aurkeztu beharko dituzte.

d) Egoki bada, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda. Zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira. Lanbidek emandako fitxen arabera.

e) Azpikontratutako jardueren xehetasuna: kontratu txikia, hitzarmena edo azpikontratazioa.

6.– Aurreko apartatuan ezarritako epea igaro eta bertan jasotako dokumentuak aurkeztu ez badira, organo eskudunak errekerimendua egingo dio entitate onuradunari 15 eguneko epe luzeazinean dokumentu horiek aurkez ditzan. Dokumentazioa ezarritako epean aurkezten ez bada edo aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen bada justifikatutako kopurua aurrerakin gisa jaso-takoa baino txikiagoa dela, itzulketa-prozedura bat abiaraziko da, 15. artikuluan arautzen den prozedurari jarraituz.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira entitate onuradunaren betebeharrak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritakoez gain:

a) Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabidea aurkeztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan.

b) Dirulaguntza eman ondoren eta Lanbiden inskribatutako pertsonen datuak eskuratu baino lehen, datu pertsonalen tratamenduari buruzko konpromisoa sinatzea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emango die), arlo hori arautzen duen indarreko araudian xedatutako baldintzetan, tratamendu-eragileak diren aldetik.

c) Kontratuen hasieraren berri ematea kontratua hasi eta hamabost egun balioduneko epean, zenbat langabe kontratatu diren zehaztuta.

d) Kontratuaren azkentzearen berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari 15 eguneko epean, kontratua amaitzen denetik aurrera.

e) Parte-hartzaileen ordezkapenaren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari 15 eguneko epean, ordeztutako pertsonen lana amaitzen den egunetik zenbatuta.

f) Laguntza emateko eta hura baliatzeko bide eman duten betekizunak eta baldintzak betetzen dituela eta jarduera gauzatu dutela justifikatzea.

g) Dirulaguntza eman den helbururako erabiltzea.

h) Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera nabarmen aldatzen duen edozein gertaeraren berri ematea, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabarren aldaketaren berri ere.

i) Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo ente publiko batek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jasoz gero –kostu berarekiko finantzaketa bikoitzik egin gabe–, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sozietate publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozeduren berri ematea.

k) Jasotako dirulaguntza erabiltzean iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko neurriak hartzea.

l) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan jardutea ofizioz edo alderdi batek eskatuta diruz lagundutako jarduera egiaztatzeko, ikuskatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko bideratzen dituen prozeduretan, eta Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Ogasun eta Finantza Saileko Politika Ekonomikoaren eta Europako Kohesioaren Zuzendaritzak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen- eta kontrol-jarduketan eraginpean jartzea.

m) Emakumeen eta gizonen arteko tratua- edo aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatzea proiektuetan parte hartzeko pertsonen probetan, elkarrizketetan eta hautaketan. Entitateak deialdi hau komunikatu eta zabaltzeko erabiltzen duen dokumentu, publizitate, irudi eta material orotan, hizkera ez-sexista erabili beharko du, emakumeen irudi diskriminatzaile eta estereotipo sexista oro saihestu beharko du eta irudi jakin bat sustatu beharko du, balio hauek izango dituenak: berdintasuna, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero-rolen eta identitateen pluraltasuna.

n) Diruz lagundutako gastuei eta jarduerari buruzko dokumentazio guztia 2032ko abenduaren 31ra arte gordetzea eta zaintzea, egiaztatu beharra dagoenerako.

o) Programaren ebaluazioan aktiboki lankidetzan aritzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin, helburu horretarako eskatzen zaien edozein informazio emanez.

p) Diruz lagundu daitezkeen gastuek Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak bete ditzaten, entitate onuradunak gastuaren kontabilitate-erregistro bat izan behar du, aparteko kontabilitate-identifikazio batekin edo kontabilitate-kode egoki batekin.

q) Proiektu batzuek Europaren finantzaketa izango dutela aurreikusita, entitateek berariaz adierazi beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Europako Gizarte Funtsekin lagundutako finantzaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko EGIF Plus 2021-2027 Programaren esparruan, deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketan komunikazio, hedapen edo argitalpenerako material eta ekintza guztietan. Europaren lagundutako finantzaketaren aipamena sinatutako kontratuetan ere jaso beharko da.

Dirulaguntzaren onuradunak diren entitateen zerrenda web-orrian sartuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1060 Erregelamenduaren 49. artikuluan jasotzen den moduan.

14. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

1.– Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, baldin eta deialdi honetan dirulaguntzen entitate onuradun izateko ezarritako gutxieneko betekizunei eusten bazaie. Nolanahi ere, dirulaguntzok emateko ezarritako irizpideak eta mugak beteko dira.

Behin dirulaguntza emateko ebazpena eginda, onuradunak hura aldatzea eska dezake. Aldaketa hori egin ahal izateko, beharrezkoa izango da inguruabar batzuk gertatu izana ebazpena eman ondoren eta entitate onuradun bakoitzari diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epearen barruan. Aldaketa inguruabarra gertatu eta berehala formalizatu beharko da, eta, edonola ere, jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorraren zuzendariak ebazpena eman beharko du, aldaketa onartzeko edo ukatzeko; eman ere, eskaera egin eta bi hilabeteko epean. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsitatzat jo ahal izango da. Ebazpenek, gehienez ere, aldaketa-eskabidea aurkeztu zen unera eraman ditzakete ondorioak. Nolanahi ere, aldaketarako baimena emateko, beharrezkoa izango da hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

2.– Baldintzak aldatzeak emandako dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharra baldin badakar, dagokion itzulketa-prozedura abiaraziko da, 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

15. artikulua.– Itzulketa-prozedura.

1.– Ezingo da exijitu dirulaguntza ordaintzeko eta, hala badagokio, jasotako kopuruak osorik edo partzialki itzuliko dira, eta dirulaguntzen arloan aplikatzen den berandutze-interesa eskatuko da, dirulaguntza ordaintzen den unetik, baldin eta deialdi honetan xedatutako laguntzen onuradunak diren entitateek urratu egiten badituzte Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 14., 27. eta 42. artikuluetan oro har ezarritako betebeharrak, deialdi honetan berariaz xedatutako baldintzak eta betebeharrak edo 20/2023 Legearen 36. artikuluan xedatutako itzulketa-arrazoien bat eragiten badute.

2.– Ez-betetzeren bat gertatzen baldin bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorraren zuzendariak entitate interesdunari komunikatuko dio itzulketa-prozedura hasi dela eta zergatik hasi den, eta 15 eguneko epea emango dio egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

3.– Alegazioak jasotakoan, edo, horrelakorik aurkeztu ez bada ere, epea igarotakoan, prozedura amaituko da Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazio eta Zerbitzu Orokorraren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez. Itzulketa-prozedura gehienez 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean ondorioztatzen bada ez-betetzeren bat izan dela, bertan adieraziko da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela eta, hala badagokio, bidezkoak diren kopuruak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari itzuli behar zaizkiola. Itzultzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

5.– Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, dirulaguntza berreskuratzeko premiamendu-bidera jotzeko irizpideak hasiko dira.

16. artikulua.– Datu-babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamendua eta Datu Pertsonalak

Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Biltzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enpleguko prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa da, eta jardueraren helburua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurrari jazartzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Eskuratzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez. Prozedura hori www.euskadi.eus/servicios/10842/ helbidean argitaratu da.

Hemen kontsulta daiteke datu-babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml>.

17. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat etortzea.

Enplegurako proiektu integraletarako dirulaguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, gastuen trazabilitateak argi identifikatuta geratu beharko du eta laguntzen eta dirulaguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako gastuen kostua baino handiagoa.

18. artikulua.– Aplikatu beharreko arauak.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzei arau hauek xedatzen dutena aplikatuko zaie: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako erregelamendua).

Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 17. artikuluan ezarritako erregelamenduzko xedapena ematen ez den bitartean, bermeen araubideari dekretu hau aplikatuko zaio, lege horren kontra ez doan guztian: 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutari ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak.

Laguntzak Europako Plus Gizarte Funtsarekin ere finantzatuta badaude, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1060 Erregelamenduaren mende egongo dira; hain zuzen ere, erregelamendu horren bitartez ezartzen dira Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Plus Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Bidezko Trantsizio Funtsari eta Itsasoko, Arrantzako eta Akuikulturako Europako Funtsari buruzko xedapen komunak, bai eta funts horietarako finantza-arauak eta Asilo, Migrazio eta Gizarteratzeko Funtserako, Barne Segurtasuneko Funtserako eta Mugak eta Bisen Politika Kudeatzeko Laguntza Finantzariorako Tresnarako finantza-arauak ere. Era berean, laguntza hauek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1057 Erregelamenduaren mende ere egongo dira; hain zuzen ere, erregelamendu horren bitartez ezartzen da Europako Plus Gizarte Funtsa (EGF+), eta indargabetzen da (EB) 1296/2013 Erregelamendua.